

# LOOK AGAIN

**BIDEO GARAIKIDEAREN BOST IKUSPEGI TABAKALERAN**
**CINCO VISIONES DE VÍDEO CONTEMPORÁNEO EN TABAKALERA**

*Filipa César*
*Marine Hugonnier*
*Rosalind Nashashibi*
*Anri Sala*
*Rui Toscano*

**APIRILAK 24 – EKAINAK 21**
**24 DE ABRIL – 21 DE JUNIO**

**TABAKALERA**

**www.tabakalera.eu**

**LOOK** Apirilaren 24tik ekainaren 21era bitartean “Look again” erakusketa izango da ikusgai Tabakaleran. Bideo garaikidearen bost ikuspegi ezberdin bistaratuko dira nazioarteko bost artistaren eskutik, Carolina Grauk komisariatutako erakusketan.

Filipa César, Marine Hugonnier, Rosalind Nashashibi, Anri Sala eta Rui Toscanoren lanak batera aurkeztuz, erakusketa honek gure ingurunea - gure egunerokotasuna, bizi ditugun espazio pribatu eta publikoak, hiriak, ikuspegi panoramikoak, paisaiak eta baita gure historia ere –bi aldiz begiratzera bultzatzen gaituzten proposamenak elkartzen ditu. Mundua begiratzeko modu ezberdinen bitartez, eta elkarrengandik erabat desberdinak diren lurraldeetan filmatutako lanekin –hala nola, Afganistan, Albania, Brasil, Alemania, Portugal, Palestina eta AEB–, Look Again erakusketako bideoek zer ikusten dugun eta ikusten dugun hori nola ikusten dugun planteatzera garamatzate.

**AGAIN** Entre el 24 de abril y el 21 de junio Tabakalera acoge en sus espacios fabriles la exposición “Look again”. Una muestra colectiva, cinco visiones de vídeo contemporáneo, de la mano de cinco artistas internacionales, en una exposición comisariada por Carolina Grau.

Presentando de manera conjunta los trabajos de Filipa César, Marine Hugonnier, Rosalind Nashashibi, Anri Sala y Rui Toscano, esta exposición muestra propuestas que nos hacen mirar dos veces a nuestro entorno, a nuestra cotidianeidad, a los espacios públicos y privados que habitamos, a nuestras ciudades, vistas panorámicas y paisajes, y también a nuestra historia. A través de diferentes maneras de mirar el mundo, y con trabajos filmados en lugares tan diversos como Afganistán, Albania, Brasil, Alemania, Portugal, Palestina o EEUU, los videos que componen “Look Again” nos llevan a reflexionar sobre aquello que vemos y sobre el modo en que lo vemos.




TAMPA

# Filipa César

(1975. Porto, Portugal. Berlinen bizi da eta bertan lan egiten du)
Filipa Césarrek espazio publikoetan gure eguneroko errutinak eta jokabideak erregistratzen ditu, gero horiek editatuz eta eraldatuz, esanahi eta pertzepzio berriak sortzeko.

(1975. Oporto, Portugal. Vive y trabaja en Berlín)
Filipa César registra nuestra rutina y nuestro comportamiento diario en espacios públicos. Editando y transformando estas imágenes crea nuevos significados y percepciones.

## Romance Reedit, 2003

DVD, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 8’ 50”
Filipa Césarrek hainbat pertsona filmatu zituen metro eta tren geltokietan. Muntaia da begiradak gurutzatzen dituzten ezezagunen arteko harremanen zirriborroak marraztea ahalbidetzen duen mekanismoa; batzuetan jakin-minak eragindako begiradak dira, bestetan behatuak izateak sortzen duen deserosotasunak eragindakoak.

DVD, color y sonora / Duración: 8’ 50”
Filipa César filmó personas en estaciones de metro y tren. El montaje es el mecanismo que permite crear esbozos de relaciones entre desconocidos que intercambian miradas, unos motivados por la curiosidad y la atracción, otros reaccionando con incomodidad a la situación de ser observados.

## Piso Terreo, 2006

DVD, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 39’
Travelling batek Calouste Gulbenkian Museoko (Lisboa) sotoetan barna garamatza – bisitariek ikusi ezin dituzten lurpeko igarobideen eta biltegien ikuspegi bat erakusten digu – , eraikinaren barne funtzionamenduan barnako ibilbidea da.

DVD, color y sonora / Duración: 39’
Un travelling nos lleva por los sótanos del Museo Calouste Gulbenkian (Lisboa) – una visión de los subterráneos y los almacenes que los visitantes no pueden ver –, un recorrido por las actividades que subyacen en el funcionamiento interno del edificio.





# Marine Hugonnier

(1969. Paris, Frantzia. Parisen eta Londresen bizi da eta horietan lan egiten du)
Hiru film hauek osatzen duten Trilogiak paisaia eta historiaren arteko harremana arakatzen du. Hugonnierrek konpromisoa hartzen du “ikuskera politika” deitzen duen horrekin, hau da, pertzepzioa ikuspegi kultural, politiko eta errealek moldatzen dutelako ideiarekin.

(1969. París, Francia. Vive y trabaja en París y Londres)
Las tres películas que conforman esta Trilogía exploran la relación entre el paisaje y la historia. Hugonnier se compromete con lo que ella llama "la política de visión": la idea de que la percepción está determinada por la perspectiva cultural, política y real.

## Ariana, 2003

Super 16 mm DVDra transferitua, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 18’ 36”
Afganistan iparraldeko Pandjshêr haranaren ikuspegi bat filmatu nahi duen errodaje taldeari buruzko istorioa da. Helburua lortzeko ezintasunak, porrot egindako proiektu baten narrazioan bilakatzen du filma, eta gogoeta prozesu bat abiarazten du ‘panorama’ kontzeptuaren inguruan.

Super 16 mm transferida a DVD, color y sonora / Duración: 18’ 36”
Es la historia de un equipo de rodaje que intenta filmar una vista del valle de Pandjshêr en el norte de Afganistán. Ante la imposibilidad de filmarlo, la película pasa a ser la narración de un proyecto fallido, en donde se inicia un proceso de reflexión sobre el concepto de ‘panorama’.

## The Last Tour, 2004

Super 16 mm DVDra transferitua, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 14’ 17”
Filma etorkizuneko irudimenezko mundu batean kokatzen da, gune turistikoak bisitarientzat erabat ixtear dauden garaian. Ikuslea fikziozko bidaia batean murgiltzen da, globo aerostatiko batean, Matterhorn mendia ikuskatzeko asmoarekin. Turismoak paisaiaren eta errealitatearen bizipenean duen eragina arakatzen du.

Super 16 mm transferida a DVD, color y sonora / Duración: 14’ 17”
El film se sitúa en un mundo futuro imaginario, en la época en que las atracciones turísticas están a punto de ser clausuradas al público. El espectador se embarca en un viaje ficticio en globo sobre la montaña Matterhorn. Explora el modo en que el turismo determina la experiencia de un paisaje y la realidad.

## Travelling Amazonia, 2006

Super 16 mm DVDra transferitua, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 23’ 52”
Filma Brasilgo Amazonian zeharko autobidean kokatzen da. 70eko hamarkadan diktadurak proiektatutako autobidearen helburua oihana ekialdetik mendebaldera gurutzatzea zen, baina sekula ez zen erabat amaitu. Artistak lerro bat marrazteko egiten duen saiakera islatzen du proiektu honek. Filmean dioten bezala, errepidea “mapetan existitzen da, baina ez errealitatean”.

Super 16 mm transferida a DVD, color y sonora / Duración: 23’ 52”
El film se desarrolla en la autopista transamazónica de Brasil que atraviesa la inmensa selva de este a oeste, y que fue proyectada bajo la dictadura en los años 1970, pero nunca fue totalmente finalizada. La película se centra en los intentos de la artista por dibujar una línea. Tal y como se afirma en el vídeo, la carretera “existe en los mapas pero no en la realidad”.





# Rosalind Nashashibi

(1973. Londres, Erresuma Batua. Londresen bizi da eta bertan lan egiten du)
Bere filmek egunerokotasunaren erritmoak aztertzen dituzte munduko edozein bazterretan, Palestinatik hasi eta Eskozia edo AEBraino.

(1973. Londres, Reino Unido. Vive y trabaja en Londres)
Sus películas y vídeos investigan los ritmos del día a día en cualquier parte del mundo, desde Palestina a Escocia o EEUU.

## Hreash House, 2004

16mm DVCAM-era transferitua, koloretan eta soinuduna. Iraupena: 20’
2003ko ramadaneko egun batez, 24 ordutan zehar egindako filmaketak, Nazareten (Israelen barruan kokatutako gunea) bizi den familia palestinar baten barne-erretratua dakarkigu. Kamera detaile arruntetan, une lasaietan, eguneroko errutinetan eta etxeko zereginen erritualetan murgiltzen da.

16 mm transferido a DVCAM, color y sonora. Duración: 20’
Retrato íntimo de una familia palestina que vive en Nazaret (enclave palestino dentro de Israel). La cámara se adentra en detalles mundanos, en momentos de calma, rutinas cotidianas y los rituales que ocupan los quehaceres domésticos, grabados a lo largo de 24 horas de un día de ramadán de 2003.

## Eyeballing, 2005

16 mm, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 11’
Artistak New Yorkeko kaleak zeharkatu zituen 16mm-ko kamera bat eskuan, eta hazpegiak (bi begi, sudurra eta ahoa) iradokitzen zizkioten eraikinetako detaileak eta hiriko elementuak grabatu zituen. Irudi horiek Manhattango polizia-etxe bateko irudiekin tartekatu zituen.

16 mm, color y sonora / Duración: 11’
La artista recorrió las calles de Nueva York con una cámara de 16mm y grabó detalles arquitectónicos y elementos urbanos que sugieren rasgos faciales (los dos ojos, nariz y boca), combinado con imágenes diarias de una comisaría de policía en Manhattan.




# Anri Sala

(1974 Tirana, Albania. Berlin eta Paris artean bizi da eta horietan lan egiten du)
Sala Tiranan hazi zen komunismo garaian, eta Albaniaren kapitalismoranzko bilakaera korapilatsuaren lekuko izan zen. Bere zenbait lanetan egunerokotasuneko irudiak trantsizio egoeran dagoen gizarte baten alegoria bilaka daitezen uzten du.

(1974 Tirana, Albania. Vive y trabaja entre Berlín y París)
Sala creció en Tirana durante la era comunista y fue testigo de la difícil conversión de Albania al capitalismo. En algunos de sus trabajos deja que una situación diaria pase a ser una alegoría de una sociedad en transición.

## Arena, 2001

DVD, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 4’38”
“Arena”-k Tiranako zooko ingurune mortura garamatza, lehoiren baten orroa soilik noizbehinka entzun daitekeen lekura, paisaia latz eta desatsegina gure begien aurrean inorena ez den lurraldea bailitzan agertzen zaigun lekura.

DVD, color y sonora / Duración: 4’38
“Arena” nos transporta al páramo desértico del zoo de Tirana, donde sólo ocasionalmente podemos oír el rugido de un felino y donde el paisaje inhóspito se extiende ante nuestros ojos como tierra de nadie.

## Time after Time, 2003

DVD, koloretan eta soinuduna / Iraupena: 5’26”
Kamera finkoak autobide erdian, bazterbidean, harrapatuta dagoen zaldia erakusten digu. Autoen argiek une labur batez argitu eta hezur eta azal den zaldi izutia bistaratzen dute. Hiri handietako biolentziari eta bakardadeari buruzko metafora da.

DVD, color y sonora / Duración: 5’26”
La cámara fija nos muestra un caballo atrapado en medio de una autopista, en el arcén. Las luces de los coches nos muestran brevemente su estado famélico y asustadizo. Una metáfora de la soledad y la violencia en las grandes urbes.





# Rui Toscano

(1970. Lisboa, Portugal. Lisboan bizi da eta bertan lan egiten du)
Rui Toscanok bideoarekin, argazkiarekin, soinuarekin, performancearekin eta instalazioarekin lan egiten du. Bere errealitate propioan (pop-rock kultura, Hamming-a, etab.) eta artearen historian oinarriturik, teknologiak eskaintzen dituen sorkuntza aukerak arakatzen ditu. Bideo hautaketa honek paisaiaz eta pintura dugun ikuskera aztertzen du zenbait hiriren plano finko eta mutuak erabiliz.

(1970. Lisboa, Portugal. Vive y trabaja en Lisboa)
Rui Toscano trabaja con vídeo, fotografía, sonido, performance e instalación. Basándose en su propia realidad (cultura pop-rock, Hamming, etc.) y en la historia del arte, explora las posibilidades creativas que ofrece la tecnología. Esta selección de vídeos explora nuestra concepción del paisaje y de la pintura, jugando con un plano fijo y mudo de algunas grandes urbes.

## Sao Paulo 24 Set 01, 2001

DVD, koloretan eta mutua / Iraupena: loop
Sao Paulo hiriaren irudi finkoa da. Soilik autoen joan etorriaren mugimendu sotila atzeman dezakegu zementuzko oihana ebakitzen duen autobidean.

DVD, color y muda / Duración: loop
Plano fijo de la ciudad de Sao Paulo. Solamente percibimos el sutil movimiento del ir y venir de los coches en la autopista que corta este bosque de cemento.

## Rio 9 Mai 01, 2002

DVD, koloretan eta mutua / Iraupena: loop
Rio de Janeiroko ikuspegi baten irudi finkoa. Olatuen mugimendua eta favelatatik irteten den kea da irudian atzeman daitekeen mugimendu bakarra.

DVD, color y muda / Duración: loop
Plano fijo sobre una vista de Río de Janeiro. Solamente el movimiento de las olas y el humo que sale de las favelas es perceptible en la imagen.

1 Filipa César
*Romance Reedit*

2 Rui Toscano
*Sao Paulo 24 Set 01*
*Rio 9 Mai 01*

3 Filipa César
*Piso Terreo*

4 Anri Sala
*Time after Time*

5 Rosalind Nashashibi
*Hreash House*

6 Rosalind Nashashibi
*Eyeballing*

7 Marine Hugonnier
*Ariana*
*The Last Tour*
*Travelling Amazonia*

8 Anri Sala
*Arena*



# LOOK AGAIN

## Argibide orokorrak / Información general

Apirilak 24 – ekainak 21
24 de Abril – 21 de Junio

Ordutegia / Horario:

Asteartetik ostiralera / De martes a viernes:
17:00 – 20:00

Larunbat eta igandetan / Sábado y domingo:
11:00 – 14:00 / 17:00 – 20:00

Sarrera doan / Entrada gratuita

## Jarduera paraleloak / Actividades paralelas

Errodaje tailerra travelling-arekin. Haur eta helduentzat:
*Tailer bat, artisten «look again»-aren gainean egindako «look again» bat*

Talleres de rodaje con travelling, para niñ@s y adultos:
*Un taller, un "look again" sobre el "look again" de los artistas*

Bisita gidatuak artistekin / Visitas guiadas con artistas

Informazioa eta erreserbak / Información y reservas: 620 676 095

Irudien kredituak / Créditos de las imágenes:

© The Artists

Courtesy
Filipa César, Rui Toscano: Cristina Guerra Contemporary Art, Lisbon; Marine Hugonnier: NoguerasBlanchard, Barcelona / Max Wigram Gallery, London; Rosalind Nashashibi: the artist, doggerfisher, Edinburgh, STORE, London and Lux, London; Anri Sala: Courtesy: Marian Goodman Gallery, New York; Galerie Chantal Crousel, Paris; Hauser & Wirth Zürich London; Johnen/Schöttle, Berlin, Cologne, Munich

TABAKALERA

www.tabakalera.eu

# LOOK AGAIN

**BIDEO GARAIKIDEAREN**
**BOST IKUSPEGI TABAKALERAN**

**CINCO VISIONES DE VÍDEO**
**CONTEMPORÁNEO EN TABAKALERA**

Apirilak 24 – ekainak 21
24 de Abril – 21 de Junio

**Tabakalera**
Duque de Mandas, 52
20012 Donostia-San Sebastián
+34 943 011 311
info@tabakalera.eu

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EL DIARIO VASCO

eitb

berria

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN